



**2023KO UZTAILAREN 11KO  
EZ-OHIKO ETA URGENTZIAZKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeitahiruko uztailaren hamaikan, arratsaldeko lauretan, Lazkaoko Udal Osoa bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean, ezohiko eta urgentziazko batzarraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Aitor Altuna Oiarbide, Amagoia Naldaiz Mingo, Josetxo Sese Eztala, Joxemai Ormazabal Sukia, eta Carolina Agirre Mastrangelo.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

**I.- URGENTZIAZKO IZAERARI BURUZ OSOKO BILKURAREN ERABAKIA.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, Eguneko Gai Zerrendako lehen puntuari heldu zaio, Osoko Bilkuraraen urgentziazko izaerari hain zuzen ere.

2023ko uztailaren 23an egingo diren Gorte Nagusietarako Hauteskunde mahaletako partaideak aukeratzeko, zozketa egin zen 2023ko ekainaren 26ko Osoko Bilkuran. Partaide horiek aurkeztutako desenkusa kopuru handiaren ondorioz, eta Tolosako Hauteskunde Batzordeak hauetako gehienak onarturik, ez dago bermatuta hauteskunde-mahaiaik eratuko direnik. Horren ondorioz, lehenbailehen beste zozketa bat egiteko premia sortu da, hauteskundeak gertu daudelako.

Hau ikusirik, Osoko Bilkurak urgentziazko izaera aho batez onartu du.

**II.- 2023KO UZTAILAREN 23AN EGINGO DIREN GORTE NAGUSIETARAKO HAUTESKUNDE MAHALETARAKO MAHAIKIDEAK AUKERATZEKO BIGARREN ZOZKETA.-**

Lehen puntua onarturik, 2023ko uztailaren 23an egingo diren Gorte Nagusietarako Hauteskundeak direla eta Hauteskunde Mahaletako partaideak aukeratzeko bigarren zozketari ekin zaio, Hauteskundeetako Erregimen Orokorreko Lege Organikoaren 26.4 artikulua xedatutakoaren arabera.

Zozketa, Instituto Nacional de Estadística erakundearen IDA-Celec plataformaren bidez egin da, datuak Lazkaoko hautesle zentsutik hartu dira, Instituto Nacional de Estadística erakundeak bidalitako datuetatik hain zuzen.

Hauexek izan dira zozketatu diren postuak:

1A Mahaia:

- Mahaiburuaren 2. ordekoa

- 1. Mahaikidearen 2. Ordezkoa
- 2. Mahaikidearen 1. Ordezkoa
- 2. Mahaikidearen 2. Ordezkoa

1B Mahaia:

- Mahaiburuaren 2. Ordezkoa
- 2. Mahaikidearen 2. Ordezkoa

2A Mahaia:

- Mahaiburuaren 2. Ordezkoa
- 2. Mahaikidearen 1. ordezkoa
- 2. Mahaikidearen 2. Ordezkoa

2B Mahaia:

- Mahaiburuaren 2. Ordezkoa

3A Mahaia:

- Mahaiburuaren 2. Ordezkoa
- 1. Mahaikidearen 2. Ordezkoa

3B Mahaia:

- 1. Mahaikidearen 2. Ordezkoa
- 2. Mahaikidearen 1. Ordezkoa
- 2. Mahaikidearen 2. Ordezkoa

Zozketaren ondoren Lazkaoko Udalerrian eratuko diren 6 mahaietarako hutsik dauden postuetako partaideak aukeratu dira, hauen datuak horretarako prestatutako orrietan jaso direlarik.

III.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du arratsaldeko laurak eta hogeirenean, nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudarik.